

Aiurri

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Bastero txiki geratu zen Kubako kantariak eman zuen saioa ikusteko

2006ko ekainaren 16a, 73 zenbakia - Andoain eta Urnietan doan banatzen da

www.aiurri.com

PABLO MILANES ANDOAINEN

Andoaingo pilotari gazteek pausu bakarrera dute finala

Denboraldia borobiltzeko partida erabakiorra jokatu da ostiral honetan Arrate pilotalekuan. Erronkarik zailenaren aurrean daude andoaindarrak.

Pausu bakarrera dago finala, hain gertu eta hain urrun. Gertu izanagatik ez du esan nahi erraza izango denik. Zaila, oso zaila izango da Donostiako taldea alde batera uztea. Joanekoan 2-1 menderatu zuten Andoaingo taldea eta 20 puntuko aldearekin datoz itzulikoa jokatzera.

Ezin ahaztu, gainera, Donostiako taldeak herri arteko txapelketan iazko irabazle eta aurtengo faborito zen Hernani kanporatu zuela. Andoaindarrak saiatu gabe ez dira geratuko eta haien esku dagoen gutzia egiten saiaturiko dira.

DENBORALDI BOROBILA

Andoaingo taldeak denboraldi borobila egin du, final aurrekora iristea sekulakoa baita.



Arrate pilotalekuan denboraldiko azken partida jokatu dute. Ez dira agurtuko zaletuen laguntza eskertu gabe. © X.Ubeda

Inork gutxi espero zuen lehen lau talderen artean bukatzea. Ostiraleko partida jokatu aurretik ere irabazle direla esan daiteke, beraz. Jokatzeko hasita, sari ederra litzateke finalera sailkatzea baina hori lortzen ez bada ere herritarren zorionik beroena merezi dute pilotariek eta entrenatzaileek.

Futbolearen edota saskibaloie-


an baino zaletu gehiago hurbiltzen da frontoira. Herrian jokatzeko ez denean ere herriz herri ibili da zalegoa Andoaingo taldea animatuz. Aurtengo arrakastaren gakoetako ere zaletuen fidelotasuna bada. Eredugarria izan da eta horretan behintzat Gipuzkoako txapel-dun direla esan daiteke, gehien eta hobekien animatu baitute.

OSTIRALEAN ARRATE PILOTALEKUAN

Txiki geratuko da Arrate azken partida ikusteko. Finalera sailkatzen denak Tolosako Beoti-barren jokatu du Azpeitia edota Azkoitia taldearen aurka. Galdu edo irabazi, pilotariek zaletuen babes eskertuko dute partidaren amaieran.

(3. orrialdean jarraitzen du)

Kirola egiteko aukera Andoain zain Urnietan



Helduek eta, batez ere, gazteek uda honetan kirola egiteko aukera berria izango dute. Garaiaren arabera, gainera, eskaintza interesgarria egin dute Urnietako kirol arduradunek. Surf egiteko aukera izango da. Tituludun monitore batek ikastaroa emango du Zurriolako hondartzan.

Andoain auzerarik ez da falta helduentzat: Fit-pump, eskalada,...

(8. orrialdean jarraitzen du)

Andoain

- Mendiko txirridulariak.
- Postontzia: Burdina taldea.

2. or.
3. or.

Urnietan

- Txerna Errasti, Salesiar ikastetxeko zuzendaria.

4. or.

InfoAiurri

- Jon Unanueren iritzia, denborapasak.

6. or.

Azkena

- Kirola egiteko eskaintza, uda honetan

8. or.

Hiru sokako minué-aren alde ez dugu lan handirik egin, baina bai zure automobilaren finantzaketaren alde.

LACETTI 1.4 SE 16V
AIRE EGOKITUA ETA 5 URTEKO BERMEA
SARRERARIK GABE
60€ / hilabetea - LEHEN URTEA
140€ / hilabetea - GAINERAKO 107 KUOTAK
Gasolina ibilgailutarako preber plana barne. %6,03 TAE

Chevrolet Lacetti

Giauto 902 345 225
Otaola etorbidea, 27. EIBAR. Tel.: 943 700 841
Karobi Industrialdea z/g. OLABERRIA. Tel.: 943 885 150
clientes@giauto.es

www.chevrolet.es

Chevrolet gehiago da



Lacetti modelo 1.4 SE 16V (ez da irudiko modelo berbera). Salneurria: 11.974€ (gasolinako preber plana eta sustapena barne). Kuotak: 1etik 12ra 60€; 13tik 119ra 140€. Finantzarikozko zenbateko osoa: 15.999,35€. TIN %5,35. TAE % 6,03. Irteera komisioa %2,5 (299,35€). Beste sustapenekin metatzina. Eskaintzak 2006-06-30 arte balio du Penintsulan eta Balearetan. Finantzaketa: Banco de Crédito, S.A. RBE: 1514/06. Kontsumo mistoa (l/100 Km): 7,1-8,8. CO² igorpena (Km./g.): 171-210. Hiru urteko bermea edo 100.000 Km-koa, bermea buruzko 23/2003 Legea aplikatzearen kalterik gabe, guri Chevrolet Servicio 5 kontratuko baldintzen arabera beste bi urte.



ASTEURU HONETAN BILBON LEHIATUKO DIRA ESTATU MAILAKO TXIRRINDULARI ONENAK

Eskualdekoak estatuko Mountain Bike txapelketan

Negu amaiera iristearekin bat txirrinduari hautsa kendu eta denboraldi luze eta gogorrerako prestatzen dituzte bere gainean doazen zaletuek. Hala egingo zuten, besteak beste, Andoaingo Ciclos Patxi

taldekoek. Kirolarekiko taldekideek agertu duten seriotasunak eta entrenamendu jarraituek, eskuratu dituzten emaitzetan eragin du-

Duela bi aste Oreretan ospatu zen Euskadiko Txapelketan, Ciclos Patxi izan zen garaile nagusia taldeko sailkapenean. Denboraldi oso ona egiten ari dira. Bestela ere, bost urteko ibilbidean, hainbat travesia eta lehiaketa irabazi dituzte. Taldeari izena ematen dion dendako arduradun Patxi Bergararen hitzetan, "taldeak oso ondo funtzionatu du". Oraindik, ordea, urria edo azaroa arte taldeak hamaika frogari aurre egin beharko dio.

ASTEURUAN, BILBORA

Andoaingo Gazte Lokalekoek larunbat honetarako Bilbora irteera antolatuta dute. Asteburu osoan, Bizkaiko hiriburuan Espainiako Mountain Bike Txapelketa ospatuko da eta bertan, Josu Arregi andoaindar



Ciclos Patxi taldea. Ezker eskuin: Oskar Bergara, Olatz Odriozola, Asier Arregi eta Josu Arregi.

gazteak parte hartuko du Four Cross mailan. Igandean, Mikel Bergara txirrindulari urnieta-

rrak esku hartuko du Bilboko ekitaldian. Zorte on bio!

BERGARA, HIRUGARREN

Igandean ospatu zen Urnieta-

Urnieta XI. Mountain Bike lasterketan ia berrogeita hamar txirrindularik esku hartu zuten; horietatik hamaika urniatarrak ziren

ko XI. Mountain Bike travesia. 48 txirrindularik esku hartu zuten; horietatik, 11 urniatarrak. Donostiako Rodríguez Salvador izan zen garaile eta bi postu atzerago Bergara urniatarra. Iñigo Hernández eta Manex Altuna herritarrak ere lehen hamarren artean sailkatu ziren.

Asteburu honetan Bilbon arituko diren bi partaideren iritzia bildu nahi izan du Aiuurri astekariak. Hona, Josu Arregiren eta Mikel Bergararen adierazpenak:

JOSU ARREGI, ANDOAIN



18 urte ditu. "Ciclos Patxi" taldeko txirrindularia da.

Txirrindurako zaletasuna etxetik dator-kizu?

Josu Arregi: Nire aita hasi zen; gero anaia. Aitak eramanda, zazpi urte ni-tuela lehen travesian parte hartu nuen.

Haurren kategorian, lehen postua eskuratu nuen. Egun, anaia, bere neskalaguna eta ni aritzen gara. Ia familia osoa.

Lehian aritzeko gogor entrenatzea ere beharrezkoa izango da?

J.A.: Ia egunero entrenatzen gara. Asten bi egunetan, fondoa hartzeko errepidean entrenatzen gara eta mendian ere ibiltzen gara.

Mendiko edo errepideko txirrindularitza. Zer duzu nahiago?

J.A.: Mendikoa nahiago dut, dibertigarriagoa eta entretenigarriagoa baita. Errepidean beti lasai joaten zara. Mendian jaitsieratan ondo ibili arren, igoratan sufritu egiten da.

Asteburu honetan Bilbora zoaz. Zer aurreikuspen dituzu?

J.A.: Selektzioarekin joango naiz. Bi ordu pasatxoko saio luzea eta gogorra izango da. Larunbatean ibilbidea ikusten izan nintzen. Oso azkarra da zirkuitoa, baina egun eguzkitsua egokitzuten bada, azkeneko itzulian nahikoa sufriruko dugu.

MIKEL BERGARA, URNIETA



29 urte. "Biker Zona" Bilboko taldekide Master Kategorian. Jaitsieran aditua.

Afizionatu izatetik partaide izatera...

Mikel Bergara: Txikia nintzenean rallyetan esku hartzen nuen. Errepidean benjamin mailan urtebete egin nuen. Gero, Mountain Bikearekin hasi ginen.

Elite mailara igarota, alfer samarrak ginen entrenatzeko eta, jaisten ondo moldatzen ginenez, jaitsieratan hasi ginen.

Nola doakizu aurtengo denboraldia?

M.B.: Duela bi aste, Euskadiko Txapelketa irabazi nuen. Estatu mailakoan parte hartu dut eta laugarren edota zazpigarren postuak eskuratu ditut. Zorte txarragatik izan da.

Jardunaldietarako ondo prestatzea beharrezkoa da?

M.B.: Entrenamendu onenak lasterketak dira. Horiek finago ibili eta urduritasuna kontrolatzen laguntzen dute. Segundu gutxiren tartean, txorakeri batengatik lasterketa galdu dezakezu.

Bilboko txapelketari begira, nola ikusten duzu zure burua?

M.B.: Ibilbidea berria da. Hara goaz entrenatzera; kontzentratuta izango gara. Zirkuitoa harriz harriz aztertu beharra dago. Memorizatua izan behar duzu, gero, itsu-itsuan jaitsi behar baituzu. Oreka galtzeko harri txiki bat nahikoa izaten da.

Ostiral honetan 20:30tik aurrera Arrate pilotalekuan

Finala pausu bakarrera

(Lehen orrialdetik dator)

Andoni Alvarez taldeko entrenatzaileak joaneko partiden azalpena eskaini dio Aiurriri, "Donostia aurtengo faborito da, iazko txapeliduna kanporatu baitzuen. Lehen bi partidatan irabazteko aukerak bagenituela uste genuen. Baina lehen partidatan 22-12 galdu genuen. Ondoren, jubenilak irten ziren jolastera eta irabaztea besterik ez zutela bazekiten. Presio horrek eraginda, oso urduri aterata eta 8-0 galtzen hasi ziren. 12-4 joan ziren ere, piskanaka partidari neurria hartu eta 22-14 irabazi zuten. Helduek zail zuten irabaztea, hori bagenekien. Donostiako Baez anaiak oso ondo dabilta. Mailarik onena ematera irten eta 22-4 galdu genuen".

20 tanto aurka dutela hasiko da itzuliko partida. Erronka ez da batere erraza. Andoainek bi partida irabazi eta hirutan 21 puntuko alde ateratzen badu bakarrik izango du eskura finala. Beste aukera da hiru partidak irabaztea, hori gertatuz gero axolik ez markagailuak esaten duena.

Hiru partidak irabazteko berriro ere zaletuen babesa funtsezkoa izango da. Txapelketa osoan zehar erakustaldi ederak eman ditu Andoaingo zaletuak. Ea denen indarrarekin finalera sailkatzea lortzen duten. 20:30tan ipinita dago hiztordua Arrate pilotalekuan.

Azpeitia, Azkoitia, Donostia eta Andoain herrien artean jokatuko da herri arteko txapelketa. Andoaindarrok, zorten on!



DONOSTIA-ANDOAIN Finalerdia, emaitzak Finalaurrea, Joanekoa

Kadeteak

Donostia 22 - Andoain 12
Aratz Ormaetxea - Aitor Ulanga.

Jubenilak

Donostia 14 - Andoain 22
Jon Eskudero - Joxe Mari Sagaseta.

Helduak

Donostia 22 - Andoain 4
Oñatz Gonzalez - Aritz Rekalde.

ANDOAIN - URNIETA Lehen kanporaketa Joanekoa

Aratz Ormaetxea - Aitor Ulanga.
Jon Eskudero - Joxe Mari Sagaseta.
Oñatz Gonzalez - Aritz Rekalde.

Itzulikoa

Mikel Jauregi - Aitor Ulanga.
Jon Eskudero - Jon Beloki.
Oñatz Gonzalez - Aritz Rekalde

ANDOAIN - BEASAIN Bigarren kanporaketa Joanekoa

Aratz Ormaetxea - Aitor Ulanga.
Jon Eskudero - Joxe Mari Sagaseta.
Oñatz Gonzalez - Aritz Rekalde.

Itzulikoa

Aratz Ormaetxea - Aitor Ulanga.
Jon Eskudero - Joxe Mari Sagaseta.
Oñatz Gonzalez - Aritz Rekalde.

ANDOAIN - ARRASATE Hirugarren kanporaketa Joanekoa

Aratz Ormaetxea - Aitor Ulanga.
Jon Eskudero - Joxe Mari Sagaseta.
Oñatz Gonzalez - Aritz Rekalde.

Itzulikoa

Aratz Ormaetxea - Aitor Ulanga.
Jon Eskudero - Joxe Mari Sagaseta.
Oñatz Gonzalez - Aritz Rekalde.
(Herri arteko txapelketaren datuak)

Zaletuak bereganatu zituen emanaldia hasi orduko

Pablo Milanes trobadorea

Zaletuek ez zioten hutsik egin eta Pablo Milanesek kantu sorta ederra eskaini zuen Andoainen. Muntaia xumearen atzean kantuak hartu zuen indarra. Georges Moustaki, Pablo Milanes..., ibilbide luzea egin dutenen artisten taula bilakatzen ari da Basterokoa.

63 urte ditu kubatarrak eta oraindik sasoiko dela ondo baino hobeto erakutsi zuen.

Milanesen aurretik, euskal kantagintzan tokia egin nahi duen Patxi Saizek abestu zuen. Jendeak gogoz entzun zituen euskal kantariaren doinuak.



Bastero kulturguneko auditorioa txiki geratu zen.

© X.Ubeda

POSTONTZIA



Ortzaikako karobia



Ortzaikako karobia Andoaingo Goinburu auzoan dago. Orain arte landaretzaz estalita egon da baina Burdina Taldearen borondatezko lanari esker, karobia agerian geratu da. Auzolandegi hau, maiatzaren 19an eta 20an egin dugu eta 20 pertsonen parte-hartu dugu.

Auzolandegi honetan karobia estaltzen eta inguratzen zuen landaretza ebaki dugu eta horrela, lehenengo fasea burutu dugu. Une honetan, Bur-

dina Taldea Ortzaikako karobiaren bigarren fasea prestatzen ari da. Azken lan hau karobia piztea eta martxan jartzea izango da eta aurtengo taldearen helburua da.

Andoaingo Udalak eta Andoaingo zenbait tabernek, dendek eta enpresek lagundu digute. Eskerrak denek eta batez ere, lanean aritu diren borondatezko pertsona guztiei.

Burdina Taldearen hurrengo lana honako hau izango da: Ameraungo brigada etxearren berreskuratze-lana. Auzolandegi hau ekainaren 16an eta 17an egingo dugu eta horretarako bolondresak behar ditugu. Etor zaitez Leitzarango ondare historikoa berreskuratzeraz!

BURDINA TALDEA

Egoera bitxia zaharren egoitzan



San Juan bataiatzailea egoitzan gauza onik ba al da azken aldi honetan? Aiurriko argazkilariak gisa honetan harrapatu zituen eraberritze lanetan zebiltzan beharginak. Kamioiaren karga arintzeko puntalak ipini zituzten. Ez da oso ohikoa horrelakoak ikustea. Argi gera dadila ez zela grebalarrien piketerik izan. Zerikusirik ez zuen langileen eskaerarekin.

Egun osoko greba

Aurreko asteko Aiurri astekarian iragarri bezala, Andoaingo Zaharren egoitzako langileek greba gogortu egingo dute datorren astelehenean aurrera. Egun osoko greba egingo dute lan hitzarmen berriaren alde. ELA sindikatuko bozeramaleak aste honetan Udalaren erantzunik ez dutela jaso adierazi dio Aiurri.

OZTARAN AUZOKO GARRATZA BASERRIAN JAIO ZEN 1893 URTEKO EKAINAREN 15EAN

Joxemari Lizeaga, azken kupelgilea

Bosgarren Sagardo Lehiaketako finalisten artean sailkatu zen Urnietako Eula sagardotegia. Saridunak, Jesus Mari Garmendia artisauro donostiarrak egindako kupelekin saritu zituzten. Garmendiak

egindako kupel horiek, garai batean Joxemari Lizeaga kupelgile urnietarrak ekoitzi zituenak bezalakoak dira; hori bai, eskalan erreproduzituak.

Benetakoak, sagardotegietan txotxerako jartzen diren horiek, eskuz egiten zituen Lizeagak. Oztaran auzoko Garratza baserrian 1893an jaioa. Ekainaren 15ean Lizeaga zendu zeneko 28. urteurrena bete zen. Sei anai-arrebetatik laugarrena, zazpi urte zituela hil zitzaion aita. Hori dela eta, oso gaztea zela lanean hasi behar izan zuen. Hernaniko zurgindegi batean beharrez aritu zen, Astigarragako Gartziategi baserriko Juana Arrieta ezagutu zuen arte. Ordutik, bertan bizi eta bederatzire seme-alaba izan zituen. Baserriko lanak sagardogintzako lanekin tartekatzen zituen.

Lan horregatik saritu zuten. 1975eko Ordiziako Euskal Jailetan ospatu zen Gipuzkoako Sagardo Txapelketa. Herritar pila bildu zuen ekitaldiak, txapeldua zein izendatuko zuten begira. Hiru orduz epaimahaia sagardoa dastatzen egon ostean, Joxemari Lizeaga bera irabazle izendatzea erabaki zuten.

70 URTEREkin KUPELGINTZAN HASIA

Baina sagardogile izateaz gain, kupelak konpontzen zituen. Denborarekin, ordea, kupelen arloan beste pauso bat eman zuen. Horiek eskuz egiteari ekin zion. Hala, 70 urte bete zituenean kupelgintzan hasi eta urte hartan egin zuen bere lehenengo kupela. Baserri ondoko



Argazkiaren eskuinaldean Joxemari Lizeaga, Guillermo anaiarekin batera.

basora joan eta zuhaitzak botatzen zituen. Haritza eta akazia erabiltzen zituen. Kupela amaitu arteko lanak etxe ondoan estalpean zuen tailerrean egiten zituen. Neketsuena, ordea, amaierako pausoa izango zen; tailerrean zuen kupela desmuntatu, pieza guztiak sagardotegira eraman eta bertan, berriz eraiki behar izaten baitzuen. Horrenbestez, sagardoa biltzen duen eduki ontziko lan prozesu osoa bere gain hartzen zuen.

Lan horretan jardun zuen ha-

Egun Astigarragan dauden Lizeaga eta Gartziategi sagardotegietan bere bilobek jarraitzen dute lanean, aitonaaren lekukoa hartuta

mahiru urtetan zehar, 83 urterekin lanbidea alboratu zuen arte. Orduko hartan egin zuen bere azken artelana. Argi denez, gizonari meriturik ez zitzaion falta. Urte horretan, 1977an, Asti-

garragako jailetan Udalak ikurriña lehen aldiz zintzilikatu zuen. Jai horren barne hiru sagardogile omendu zituzten; tartean, Joxemari Lizeaga bera.

Egun, Astigarragan dauden Lizeaga eta Gartziategi sagardotegietan bere bilobek jarraitzen dute lanean, aitonaaren lekukoa hartuta.

JOKALARI EZIN HOBEA

Aisialdirako tartea ere hartzen zuen. Samieletan, bere jaioterria, Urnietara etortzea gusto-

Urnietara etortzea gustoko zuen. Errosarioko Ama Birjinaren egunean, meza nagusia entzun, Zaldundegiko hamaiketakoa dastatu eta anaiaren etxean bazkaltzen zuen

ko zuen. Errosarioko Ama Birjinaren egunean, meza nagusia entzun, Zaldundegiko hamaiketakoa dastatu eta anaiaren etxean bazkaltzen zuen. Petrtegi sagardotegira edo Hernaniko feriara joan, tabernaren batetik osteratxo bat egin eta ez zen etxeratzen mus partida jokatu gabe.

Bere indarra neurtzeari ere ez zion muzin egiten. Behin, euskal barra jaurtiketako txapeldua Gartziategira bertaratu zen. Sagardoa dastatu ostean, jaurtiketa proba egin behar zutela eta, txapeldunari Lizeaga bera gailendu zitzaion. Indartsua eta langilea zen, Gartziategi baserri ondoko etxea ia erabat berak bakarrik eraiki zuela kontuan hartzen bada.

Urnietarra kupelgintzan ari zenean, jada sagardogile gehienek asturiastarrei erosten zizkieten haiek modu industrialean egiten zituzten kupelak. Horregatik, orduko kronikek, "euskal sagardoaren Noe" hots egiten zioten Lizeagari, bera baitzen kupelen artisauro bakarra; azken kupelgilea.



eguzkitanblai

Uztailean Urnietan

Ludoteka - Jolastu euskaraz

Taldeen zerrenda ofizialak, ekainaren 16tik aurrera ikusgai Lekaio Kultur Etxean.

Euskara Zerbitzua
Lekaio kultur etxea • 943 008 033
euskara@urnieta.org

Urnietako Udala



UNE HONETAN LAN POLTSA HUTSIK DUELA DIO SALESIAK IKASTETXEKO ZUZENDARIAK

Txema Errasti, Lanbide Heziketaz hizketan

Oker dabil Lanbide Heziketa bigarren mailakoa edota soilik gizonezkoentzat dela uste duena. Ikasketa mailakatu eta zabala eskaintzen du Salesiar ikastetxeak; Erdi maila eta Goi maila.

Erdi mailan Mantenimendua eta Instalazio Elektrikoak, eta Goi mailan Instalazio Elektrikoak, Erregulazio Sistemak eta grafikagintza. Azken horretan, aurre inprimaketa eta inprimaketa.

Lanbide heziketak eskaintza anitza eta lan mundurako irteera ugari ditu. Salesiar ikastetxeoko zuzendari **Txema Errasti** bertan dituzten aukeren berri eman digu.

Zer moduz joan da izen emate kanpaina?

Txema Errasti: Urte hauetan arazoekin gabiltza, jaiotza gutxi izan baitziren. Batzuetan taldeak ondo osatzen ditugu, batez ere grafikagintzan. Elektronika ikasketak eskaintzen dituzten ikastetxe gehiago daudenez, gai horretan ikasle kopuru aldetik justu samar gabiltza. Bestalde, ikastetxea ezagutzen duen norbaitek esanda datoz gehienak izena ematera. Ezagunen artean banatzeko familiei ere txostenak bidaltzen dizkiegu. Garrantzi gehiena ahoz ahokoak duela oharatu gara.

Ikasturte berriari begira, zein da duzuen eskaintza?

T.E.: DBH, hiru batxilergo modalitate (teknologikoa, zientifikoa eta humanistikoa) eta Lanbide Heziketan bi maila eskaintzen ditugu; Erdi maila eta Goi maila. Erdi mailan, Mantenimendua eta Instalazio Elektrikoak, eta Goikoan, Instalazio Elektrikoak, Erregulazio Sistemak eta grafikagintza. Azken horretan, aurre inprimaketa eta inprimaketa.

Ikasleak praktiketara eta lan mundura bideratzen dituzue?

T.E.: Enpresetatik eskaerak jasotzen ari gara, baina une honetan horietara bidaltzeko ikaslerik ez dugu. Une honetan, lan poltsa hutsik dugu. Alde horretatik ondo gaude. Horrek orain praktiketara ari direnak ziurrenez ongi joan eta lanerako har ditzaketela esan nahi du. Bi urtetan, inguruko lanbideratze-tasa altuena gure ikastetxeak izan du.

Ikasitakoa enpresetan aplikatzeko aukera handiak dituzte?



Txema Errasti, Salesiar ikastetxeoko zuzendaria.

T.E.: Aukera dute bai. Enpresari edo langileek, horietako asko ikasle ohiak izanda ikastetxea ezagutzeak asko egiten du hori. Esperientzia eta konfiantza horrekin ikasleak eskaintzen dituzte. Teknologikoki enpresek laguntzen digute, ideiak ematen dizkigute eta bestetik, prestakuntza eta langileak eskatzen dizkigute.

Enpresa mundutik at bizidun Lanbide Heziketako ikastetxe batek ez du etorkizunik.

Nongo enpresetatik jasotzen dituzue eskariak?

T.E.: Ikasketen arabera izaten da hori. Elektrizitatea-elektronika alorrekoak, batez ere, hemen inguruan. Grafikagintzan alderantziz. Oñatira, Donostiara eta Irunera joaten dira gure ikasleak edota alderantziz, beste ikastetxeetatik ikasleak ere etortzen zaizkigu; hala nola, Bizkaia, Nafarroa, Kantabria, Galizia edota Frantziatik.

Ikasketa arloan zer egin argi ez duen ikasle horri zer aholkatuko zenioke?

T.E.: Hori batxilergoa eta DBH amaitzen duten ikasleekin gertatzen zaigu. Haiek aukeratu egin behar dute eta bi puntu argi izan behar: ikasleek zer nahi duten eta zer aukerak dituen lan irteera gehienak. Alferrikakoa da gustoko duzun zerbait ikastea, aukeraketa horrek lan mundurako irteerarik ez badu. Horregatik zalantza

“Enpresetatik eskaerak jasotzen ari gara, baina une honetan horietara bidaltzeko ikaslerik ez dugu”

Txema Errasti

gehiago ditugu batxilergo humanistikoa egiten dutenekin, haiek normalean aukera gutxiago izaten baitituzte. Bestalde, unibertsitatera joan baino lehen, gomendagarria da lehenbizi Goi mailakoa egitea. Hartara, alderdi teorikoaz gain, praktikoa ere jorratuko dute.

Oraindik Lanbide Heziketan hain prestakuntza ona jasotzen ez denaren irudi hori ba al da?

T.E.: Irudi hori okerra da. Baina Lanbide Heziketak itxura aldatu du. Ikasketak aldatu eta mailakatu dira, irakasteko moduak bezala. Goi Mailako ikasketetara ailegatzeko ikasleek batxilergoa gainditu behar izaten dute. Tituluak asko zehaztu dira gainera; ondorioz, baita ikasleen gaitasunak ere. Lan munduratzeari eman nahi zaio lehentasuna. Hala ere, oraindik Goi Mailako titulua ez da behar bezala onartzen.

Lanbide Heziketatik emakumei zuzendutako kanpaina asko egin dira. Fruiturik eman al dute?

T.E.: Gure esperientzia honakoa da. Grafikagintzan nesken presentzia nabarmena da. Aurre inprimaketan neska gehiago gaude, baina elektronika eta mekanika mantenimenduan gutxiago. Hala ere, elektrizitate-elektronikan eta instalazio ikasketetan orain arte aritu diren bi neska lanean dabiltza. Eta gustora. Aurten lau neska erregulazio sistema ikasten ari dira. Beste neska batek mekanika eta pneumatika arloko ikasketak egin ditu. Soldaduran ikasgelako onena izan da. Orain, 19 urterekin lanean gustura dabil.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Ekoizlea: ERROITZ
KALITU MUGATUA

Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:

Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren Andoaingo Udalerrri Biltzarra eta Urnieta Inistorra Euskaltzaleen Biltzarra.

Egoitza Orokorra:

Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: aiurri@topagunea.com
Webgunea: www.aiurri.com

Urnieta egoitza:

San Juan Plaza, 9
20130, Urnieta
Tel.: 943 331 455
@: urnieta@topagunea.com
Ekoizpena: erroitz@erroitz.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.

Erredakzioa:

Ainhoa Gil, Aritz Gorriti, Jon Ander Ubeda eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.

Publizitate

Arduraduna: Fernanda Irazu.

Argazkilariak:

Xabier Ubeda.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia (Huarte-Iruñea).

Lege Gordailua: SS-1078/04
ISSN: 1698-4870

Kudeatzailea:

Aitziber Arreseigor.

Banaketa

arduraduna: Xabier Ubeda.

Banatzaleak:

Andoain: Laida Jauregi, Elixabet Isasi, Urnieta: Ander Balda, Beñat Erkizia.

Agenda

EKAINAREN 16TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: 943 300 732 / aiurri@topagunea.com

Zinema

Urnieta

■ "Salvaje" filma proiektatuko da Saroben. Ekainaren 16an (ostirala) 22:00etan eta hilaren 18an (igandea) 16:00etan. Sarrera: 2,50 euro. Ekainaren 16an eta 18an

■ Uda giroan sartuta, zinema kalera eramango du Gazte Lokalak. Asteazkenero filma eskainiko da. Ekainaren 28tik aurrera Goikoplaza

Irteera

Urnieta

■ Euskara Sailak antolatuta Iparraldera eta Nafarroara irteera. Irulegiko bodega bat, Elizondo eta Bertizko lorategiak bisitatzeko aukera. Izen ematea: Lekaion. Urnieta 30 eurotan; herrian errolatu gabekoek 36 euro. Ekainak 18, igandea

Ludoteka

Urnieta

■ 16:30-18:00 Ikasturteari amaiera emateko, ludotekak bere jostailuak Jakutegi plazara aterako ditu, herriko haur guztiak jolastu daitezten. Ekainaren 19an eta 21ean

Mendizaleak

Andoain

■ Euskalduna Mendigoizale taldeak Petretxema eta inguruko mendietara irteera antolatu du. Ekainak 17-18



Antzerkia

Andoain

"La curva de la felicidad"
Ekainak 17 Larunbata. 21:30
Bastero Kulturguneko Auditorioa
Sarrera: 10 euro. Zenbakitua.

Sanjuanak

Urnieta

■ 20:30 Herriko haurren kantu emanaldia Plazido Muxika plazan.
22:00 San Juan sua.
Ekainak 23, ostirala

Musika

Andoain

■ Soinuak Musika Eskolako ikasle gazteenak Donostiako FNAC aretoan izango dira. Europako musika eguna denez, bertan izango dira akordeolariak, kitarra joleak, txistulariak...
Ekainak 19, astelehena. 19:00

■ Josu Okñena pianoan eta Razvan Suma txeloarekin.
Ekainak 16 Ostirala. 19:30
Bastero Kulturguneko Ekitaldi aretoa

Kirola

Urnieta

■ Tenis txapelketa. 19:00etan eta 20:00etan lehen lau sailkatuen finalurrekoak.
Ekainak 22, osteguna
16:30etan eta 17:30etan 3. eta 4. postuetarako partida eta final nagusia.
Ekainak 23, ostirala

Andoain

■ Herri arteko pilota txapelketa Finalerdiak, joanekoak:
Andoain-Donostia
Ekainak 16, ostirala
Arrate frontoia, 20:30.

Andoain

■ Gazte Lokalarekin, Bilbora irteera. Josu Arregi mountain bike-ko txirrindulari gaztea animatzeko irteera.
Ekainak 17, larunbata

Auzolana

Andoain

■ Leitzaranean, Ameraungo brigada etxearen berreskuratze-lana. Burdina Taldearen ekimena aurrera eramateko bolondresak behar dira.
Ekainak 16-17

Jaia

Urnieta

■ Ikasturte amaierako jaiak Egape ikastolan eta Presentación de María ikastetxean. Egun osoan zehar ekitaldi ugari. Aiurriko harpidedun-laguntzaile izateko aukera izango da.
Ekainak 17, larunbata

Zorion-agurrak:
aiurri@topagunea.com



ZORIONAK

Beñat Mateos Zeberioi lehen urtea beteko du ekainaren 18an. Muxu handi-handia etxekoan partetik.

ANDOAIN

URNIETA

NAGUSIEN KULTUR ASTEA

Udaleko Gizarte Zerbitzuek antolatuta, Jubilatuta eta Pentsiodunen Kultur Astea. Hau da prestatu duten egitaraua:

- **Ekainak 18, igandea**
14:00 Bazkaria eta dantzaldia.
- **Ekainak 19, astelehena**
17:00 Hitzaldia: "Sexualitatea nagusietan". Hizlaria: Iñaki Aragon psikologoa.
- **Ekainak 20, asteartea**
16:00 Idiazabal gaztaren interpretazio zentrorra txangoa.
- **Ekainak 21, asteazkena**
17:00 Hitzaldia: "Gozatu eta umore ona zaindu". Hizlaria: Silvia Camio psikologoa.
- **Ekainak 22, osteguna**
Ibilaldi neurtua herrian barrena
- **Ekainak 23, ostirala**
17:00 Txokolatada.
17:30 Dantzaldia.
22:00 San Juan sua.



Ludoteka kalera festa

Ekainaren 19an eta 21ean, Jakutegi plazan

- **Psikomotrizitate txokoa:** txirristra, uztai erraldoi, balanzina, ohe elastikoa...
- **Adierazpen txokoa:** margoak, errotugailuak, papera, buztina...
- **Eraikuntzen txokoa:** legoak, egurrezkoak, puzzleak, garajeak...
- **Kirolen txokoa:** baloi erraldoiak, boloak, tragabolak, zankoak...
- **Jostailu kooperatiboen txokoa:** parakaidasa, bamboleo, palazo paletti...

Euskara Zerbitzua
Lekaio kultur etxea • 943 008 033
euskara@urnieta.org

16:30etatik 18:00ak bitartean
Urnieta haur guztiak gonbidatuak

Urnieta Udala



ALLURRALDEN HELDUENTZAT AUKERA ZABALA ESKAINIKO DA UDA HONETAN

Uda kirolaz blai

Kirola egitea osasuntsua da. Berriki kaleratu den ikerketa baten arabera, ordea, hamarretik seik kirol jardueretan aritu baino horiek ikustea nahiago omen du.

Hastear den uda sasoiari begira, Andoaingo eta Urnietako kiroldegiek kirol eskaintza anitza prestatu dute. Uda, gainera, kirola egiteko sasoirik aproposena da.

Aurreko urteekin alderatuta, berrikuntzak izango dira. Andoainen, Fit-pump, musikaren erritmoen arabera, fitnesseko barrak altxatzea pisu ezberdinekin; futbol training, astebururo futbolearen aritzen direnei aste tartean horri jarraipena emateko eskaintza; eskalada rokodromo berrian; eta areto txirindularitza, kiroldegiko bizikleta estatikoetan ibiltzeko aukera.

Allurraldeko administrari laguntzaile **Miren Agirrezabalek** oроitzen duenez, "ikastaro batera taldean etortzeak jendea gehiago motibatzen du. Askotan norbere kontura kirola egitea zailagoa da."

Urnietan ere bada berrikuntzarik. Aurtengoan, surfean aritzeko aukera izango da. Tituludun monitore batek ikastaroa Zurriolako hondartzan emango du. Ohola, neoprenoa eta aseguru ordaindu beharreko kuotaren barne sartzen da.

Hipikan aritu nahi duenak, aldiz, ikasgaia Lasarte-Orian dagoen Bugatiko hezitzean jasoko du. Eskaladak, tenisa eta igeriketak osatzen dute uda honetako kirol eskaintza. Horiek Urnietako kiroldegian antolatuko dira.

GAZTETXOEK BETIKO AUKERAK

Gaztetxoek kirol modalitate klasikoak hautatzen dituzte. Eskari gehien jasotzen dituen

JARDUERA	ADINA	ORDUTEGIA	EGUNA	LEKUA	PREZIOA
Eskalada	11-15	17:00	Uztailak 17-21	Kiroldegia	30 euro
Hipika	8 <		Uztailak 17-29	Lasarteko Bugati	120 euro
Igeriketa	3-14	Goizez	Uztaila, abuztua	Kiroldegia	20-30 euro
Surfa	8-12	Goizez / arratsaldez	Uztailak 3-14/17-28	Zurriolako hondartza	62 euro
Tenisa	8-16	Goizez / arratsaldez	Uztailak 3-14/17-28	Kiroldegia	30 euro
			Abuztuak 21-Irailak 1		

ANDOAIN

HAURRAK

JARDUERA	ADINA	ORDUTEGIA	EGUNA	PREZIOA
Igeriketa	6 hil. <	Goizez / arratsaldez	Uztailak 3-14/17-28. Eguneroko ikastaroa.	20-31 euro
Tenisa	8-12/ 13-16	10:00/11:00/12:00	Uztailak 3-14/17-28. Eguneroko ikastaroa.	20 euro
Txirrin.	12-16	10:30	Uztailak 3-28. Astearte eta ostegunetan.	26 euro
Aerobika	12-16	10:30	Uztailak 3-28. Astearte eta ostegunetan.	16 euro
Eskalada	8-12/ 13-16	11:00/12:00	Uztailak 3-14/17-28. Eguneroko ikastaroa.	20 euro

ANDOAIN

HELDUAK

JARDUERA	ORDUTEGIA	EGUNA	PREZIOA
Igeriketa	Hastapena: 8:30/19:00 Hobekuntza: 9:30/20:00	Uztailak 3-14/17-28 Eguneroko ikastaroak	20 euro
Aquagym	Ast/Astz/Ostir.: 9:30/19:00/20:30 Astr/Ostg.: 19:00/20:00	Uztailak 3-28	26 euro 20 euro
Aerobik	Ast/Astz/Ostir.: 10:30/19:00/20:00 Astr/Ostg.: 18:30	Uztailak 3-28	21 euro 16 euro
Futboltraining	Astr/Ostg.: 18:30	Uztailak 3-28.	21 euro

jarduerak igeriketa eta tenisa izan ohi dira. Bestela, hor dugu Urnietako adibidea.

Bertako Udak Kirol Instalazioetako zuzendari Xabier Madinak gogoratzen duenez, "izen ematea zabaldu eta ordubetera, jada igeriketa talde bat osatua zegoen". Hain zuzen,

bertan dagoen igerileku estali gabea urnietarren eta Hernani edota Andoaindik doazenen bilgune nagusia da uda partean. "Urtean zehar, 100.000 pertsona etortzen dira batez beste; udan, horietatik 40.000." Datorren ostegunetik irailaren 15era arte zabalik

izango da goizeko 10:00etatik iluntzeko 20:30ak artean.

Bertatik bi ohar jakinarazi dizkigute. Kirol instalazioetan erretzea debekatua dago, leku publikoa eta heziketa gunea baita. Bestalde, monitoreen oharrei kasu egitea eskatzen dute.

"Izen ematea zabaldu eta ordubetera, jada igeriketa talde bat osatua zegoen"

Xabier Madina

IZEN-EMATEA AZKEN TXANPAN

Bateko zein besteko eskaintzan izen emateko epeak zabalik daude. Allurralden gaur (ekainak 16) da izena emateko azken eguna: goizean, 9:30-13:00 artean eta arratsaldean, 17:30etatik 19:30ak arte. Bertara joan eta datu pertsonalen orria bete behar da. Datorren astearte eta asteazkenean (ekainak 20 eta 21) kiroldegi sarreran ipiniko dituzte izena emandakoen zerrendak. Hautaketa zozketa izango da hilaren 22an. Azkenik, ekainaren 26 eta 27an behin betiko zerrendak ipiniko dituzte.

Urnietako kiroldegian izen ematea hilabete amaierara arte zabalik dago, 9:00etatik 13:00ak arte kiroldegiko bulegoetan. Izen ematearekin batera ordainketa egin behar da. Taldeak osatzen ez badira edota ikastaroa baino gutxienez aste bate lehenago izena ematea ezeztatu nahi izanez gero, diru itzultzen da.

Eta gogoratu: Buruntzaldeako bazkide zaretenok, Urnieta, Andoain, Hernani, Lasarte-Oria eta Usurbilgo kiroldegietarako sarrera doan duzue.

POSTONTZIA

ANDOAINGO UDALEKO KALE-GARBITZAILE KOLEKTIBOAREN ETA ENPRESA BATZORDEAREN INFORMAZIO OHARRA

Udal honetako gobernu taldeak ez duenez, udal kale-garbitzaile zerbitzuko langileen etorkizunari buruz eskatu zitzaion informazioa ematen, ondorengo salaketa egin nahi dugu:

1. Udalerriko zati baten garbitzaile zerbitzua pribatizatu da 6 hilabetetarako -108.000 euro, denbora horretan 9 kale-garbitzaile kobratuko luketena baino gehiago- esperientzia horrek zerbitzua pribatizatzea ala egun beza-

la zerbitzua publikoa izaten jarraitzeko erabakia hartzen lagunduko die-lakoan. Baina, aldi berean, konfiantza izatea eskatu zaigu eta hilabete epearen barruan zerbitzua hobetzeko proposamen bat aurkeztuko zaigula esan zaigu. Hiru pasa dira eta zain jarraitzen dugu.

2. Elkarrekin izan ditugun elkarriketetan pribatizaziorako leporatu zaigun argudioa da, gure lanean eraginkortasun eta malgutasun gutxi izatea, bai-

na inoiz ez da esaten egoera hori, Udal honetan erantzukizuna duten teknikariek eta politikoez zerbitzu ustel bat sortu nahi izatearen ondorioa izan dela eta dela. Bi adibide nahikoak dira hori ikusteko. Lehena: kale-garbitzaileen kopurua orain 15 urteko kopuru berdina da, guztira 8 eta makineriari dago-kionen ere berdin jarraitzen dugu. Eta bigarrena: igandeetan eta jai-egunetan lan egiteko proposamena ez onartzea, gure lanaren ezin balorazio positibo egiteko aukerak murrizteko xedez.

3. Gobernuak (PSOE-PP) hilabete epean kale-garbitzari buruzko proposamen bat aurkezteko konprometua hartu zuen bere gain; hiru igaro dira eta lehen bezalaxe jarraitzen dugu. Orain arte, idatziz dauden proposamen bakarrak gureak dira eta zerbitzua langile gehiago kontratatuz eta makinerian inbertsioak eginez hobetzera zuzendurik daude nagusiki; kostuen azterketatan oinarritutako proposamenak dira eta Udalarentzat enpresa pribatuaren aukera baino

hobeak direla erakusten dutenak gainera.

Errealitate honen aurrean, kolektibo hau osatzen dugun langileok eta Udaleko enpresa Batzordeak, bizi dugun egoera hau jende aurrera ateratzea erabaki dugu eta, bide batez, egoera honi aurre egiteko erantzun bat exijitzen diogu Gobernu taldeari.

Andoain, 2006ko ekainaren 8an